



LIBURUA

# Hizkuntza eta gatazkak



## BIHOTZA NEGAR ETA IRRI

MARYSE CONDÉ  
ITZUL: J. M. BERASATEGI

EREIN & IGELA, 2021

### IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**E**z dut frantsesez ezta kreoleraz idazten: *Marysecondéraz* idazten dut". Horixe azaldu zuen *Bihotza negar eta irri* liburuaren idazleak 2016an. Joxe Mari Berasategik hizkuntzaren erabilera propio hori ekarri du euskarara Erein eta Igelak iaz argitaratu zuten narrazio bilduma laburrean.

Iruditzen zait hizkuntza baino arras gehiago euskaratu dela sortzaile guadalupetar eta Nobel sari alternatiboaren irabazlearen hizkuntza-erabilera partikularra itzultzean. Hau da, gizarte gatazken, egiturazko zapalkuntzen eta botere harremanen zirkulazioaren erradiografia literario kokatua da *Marysecondéra*. Horixe dago orain euskaraz irakurgarri.

Izan ere, *Marysecondéra* ez da bakarrik azentu anitzekoa. Ez da aldatuko soilik klase sozial ezberdinen hizkuntza erabileraren arabera. Condéren literaturak borroka-eremu bilakatzen du *Bihotza negar eta irri*ko hizkuntza.

Narrazioek kreoleraren eta frantsesaren arteko tentsioan irakurgarri egiten dituzte klase sozialen arteko gatazkak. Jaiotzen denetik hemezortzi urte betetzen dituen arteko garaia kontatu bitartean, egunerokotasuneko talka etengabe, ez-ikusgarri, erabat mundutar mikroskopikoekin borrokatuko da protagonista. Talka horien bitartez pentsatuko du bere burua.

Nahasita irakur daitezke egiturazko zapalkuntza arrazialak eta ekonomikoak, generoari dagozkionak eta se-

xualitateari lotutakoak. *Petit-nègreak*, *grand-nègreak*, mulatoak, *pays-blancak*; fabrika-langileak bortxatu birramona eta ezezagunak bortxatu amona; guraso alienatu, neba komunista, eta larru-beltz maskara-zuri protagonista; jendailakume, zerbitzari, funtzionario, burgesia ertain-gorako eta magistratuak; eta kolonia eta metropoliaren arteko distantziak. Guztiek desordenatuta eraikiko dute mundua bezala protagonista.

Ezinbestean, gatazko hizkuntza-gatazka gehitu behar zaie egiturazko zapalkuntza gisa. Izan ere, frantsesa zein kreolera ez den hizkeran soilik adieraz daitezke Guadalupeko askotariko gatazkak. Hau da, hizkuntza bat ez da soilik borroka-eremu; bada, baita ere, zapalkuntza-gune. ●